

2007ko azaroaren 28an egindako osoko bilkuran, Zarauzko Udalbatzarrak honakoa erabaki zuen: sektoreko hitzarmen-batzarrak abiarazi zuen 32. industri sektoreko –Errotaberri- antolamenduko plan partziala behin betiko onartzea. Onartutako proiektua 2007ko azaroko testu bategina da, Javier eta Patxi Corta arkitektoek, Antton Jaime ingeniariak eta Natxo Izeta abokatuak sinatutakoa (2007ko azaroko dokumentua).

Akordioaren testu osoa eta plan partzialaren ordenantzak 2008ko otsailaren 6ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (26. zenbakia) argitaratu ziren.